

Xabier Letona



DANI BLANCO

## Autokritika, armak eta aitzakiak

**BILBOKO** alkateen bilkuran osterarikusi da iraganaren irakurketa dela edozein bake prozesuk duen korapilo trinkoenetakoa. Urkullu lehendakariaren gidaritzapean han izan ziren EAJ, EH Bildu eta PSE-EEko 114 alkate. Baziren gabezia ugari, baina partaidetzari dagokionez, garrantzitsuena PPren presentzia eza izan zen, alkaterik ia izan ez arren, gatazka honetako aktore garrantzitsuena delako gaur egun, batez ere egiazko bake prozesu bat aurrera eramateko oztoporik sendoena bilakatu delako.

Urriaren 20an lau urte beteko dira ETAk jarduera armatuaren amaiera iragarri zuenetik. Harrez gero, PPK etengabe oztopatu du mende Erdiko gatazkaren irteera ordenatua. Gatazkaren humanizatzean zero urrats egiteaz gain, errepresioaren logikan gotortu da.

Beste muturrean ETA dago, ataka honetatik atera ezinean, jarduera armatua hainbat aukeratan utzi ez izanaren gatibu. Ondorio asko eta larriak izan zituzten erabaki haiek, baina gaur egun presoak dira Lizarra-Garazi edo Loiolako trenak galtzearen ondorio lazgarrienak. 2011ko urrian nekez pentsatuko zuen ezker abertzaleak lau urteren ondoren esparru hori berdin edo okerrago egongo zenik. Edo 2013ko Aste Santuan, ETAk nazioarteko egiaztatzaileei arma sorta txikiaren entrega egin zienean, nekez irudika zitekeen bi urtera arma guztiak oraindik entregatu edo desegin gabe –non da desberdintasuna jada?– leudekeenik.

Urteetan Estatuaren negoziazio borondate eza jarri zuen mahai-gainean ETAk borroka armatuarekin jarraitzeko. Orain zailtasun teknikoak dira mahai gainean armen

desegitea behar bezala egiteko; eta ez zaio arrazoirik faltako, poliziak atxilotzeko prest edo armen entrega errazten izatea zeharo desberdina baita hori bideratu behar duen etakidearentzat. Eta hala, bake prozesuan aurrera ez egiteko aitzakia bihurtu dira armak.

Alde bakarreko bideak korapilo hori askatzea ETArene esku uzten du funtsean. Nazioarteko egiaztatzaileen bidetik edo Jaurlaritzarenetik, baina lehenbailehen bideratu beharrekoa da armen. Besterik ezean, aitzakiak kentzea baita ETAk egin dezakeen bakarra.

ETA desegitearena da bake prozesuan urratsak ez emateko erabiltzen den beste argudioa, bai PPren eta PSOEn aldetik, eta baita EAJrenetik ere. Egiazko bake prozesuaren ikuspegitik, ETA desegitea horren ondorio izatea litzateke onuragarriena halako zuloan berriz ez jausteko. Horrez gain, ETAk berak eman beharko litzuzke egindakoaren azalpenak. Eta hau ez da ezker abertzalea dagokion erantzukizunetik libratzeko, baizik eta bakoitzak bereak modu egokiagoan bizkarrera ditzan.

*Nazioarteko egiaztatzaileen bidetik edo Jaurlaritzarenetik, baina lehenbailehen bideratu beharrekoa da armen*

Garai bakoitzean era desberdinean, baina mende Erdiko ibilbidetan, ETAk ezker abertzalean –eta oro har abertzaletasunean– topatu du behar zuen babes herri-tar eta ideologikoa, baina abertza-

letasuna ez da ETA izan eta ezker abertzalea ez da ETA izan. Horregatik izango luke zentzua ETAk bizikidetzara bake prozesu batean nolabaiteko parte hartzea izatea, ez ezker abertzalearen ordezkari eta zaintzaile gisa, aurreko prozesuetan bezala, dagokion erantzukizunari hobeto erantzuteko baizik. Ezin zaio eskatu Sorturi, are gutxiago EH Bilduri, ETAk egindakoaren erantzukizun osoa.

**MEMORIA** nekez jorratu ahalko da modu txukunean adostasun maila baten gainean egiten ez bada. Horretarako iraganaren irakurketa partekatua behar da eta ezker abertzalea ezinbestekoa da zeregin horretan. Ezker abertzaleari exigitzen zaion autokritika baldin bada esan dezala 50 urteko borroka armatuak ez duela zentzurik izan edota iragan hori guztiz arbuizaten duela, nekez egingo da aurrera. Hasi egin behar da egiazko prozesua, baldintzetan baino eskaera eta eztabaida serioetan oinarritua. Eta hor ikusiko da elkarrizketak noraino iristen diren.

Eta hala esparruz esparru, puntu garrantzitsuenera iristeko: etorkizunean ez dela bortizkeriarik erabiliko, ez helburu politikoak lortzeko, ezta euskal herritarren edozelako erabaki zapuzteko ere.

Bakearen ikuspegitik ez da ez zilegi ez eraginkorra ezker abertzalearen autokritika aitzakiatzat baliatzea bake prozesua sendotasunez ez bideratzeko. Presoen esparruan eskaera hori makurragoa da: beren gatibu izaera baliatuz damua, salaketa edo pentsatzen ez dutena esatera behartzea, etikoa ez izateaz gain, ez da batere onuragarria etorkizuneko bizikidetzari begira. ■